

ESKOLA-LIBURUAK DIRELA-TA

MANUEL DE LEKUONA

1981'gn. MAIATZEKO BATZARRA, ILLAK 23. IRUÑEAN.

Larunbat joan danean, illak 16, Donostian egin zan Batzarrera ez nuan joaterik izan. Eta oraindik ez dakit Batzar artan zer gai ikutu ziran. Bañan Batzarrerako Deian ageri danez, an ikutu bearreko gai bat, au izan zan: Liburuak argitaltzerakoan, Eusko Ikaskuntzak erabakitzea zein liburu diran lenengo lenengo argitaldu bear lirakenak (prioridad de orden, alegia).

Nere iritzia ordu otan, Ikastolatan erabiltzen diran eta erabilli bear diran ikas-liburuen aldekoa da, textoen aldekoa, alegia. Ikusi, zer textu erabiltzen diran, eta aztertu ea on izango dan, textu berakin jarraitzea, ala obeko ez ote dan, textu berri batzuek egitea, orain arteko amar urte otan ikusi diran ez-bear batzuek.

Izan ere, amar urte otan, Ikastolaetako umeen guraso batzuek, Ikastolaetako liburuetan arkitu dituzten troxu batzuekin arriturik eta txunditurik gelditu dira. Auek, adibidez:

«Lau kromo DET; bi eman DET; zenbat gelditzen ZAIT?

«Zenbat belarri DU bi katuk?».»

Arritu ta txunditurik.

Izan ere, olako troxuak, Gramatika jatorrean, benetako herejiak dira, edozeñek esan dezakean bezela...

Dirudianez, texto oiek presaka ta lasterka egin ziran, eta pertsona bati bakarri-edo lana gomendaturik. Gauza oiek, ordea, astiro ta askoren artean egin bearrak izaten bait dira, ekipoa egin bearrak.

Izan ere, gero ola atera dira gauzak.

Dirudianez, ori ola ipiñi zuanak uste zuan, euskerazko *numeralak* indefinituak diralako, numeralari dagokion berboak beti singularrean egon bear duala; oiturak, ordea, ez bait ditu gauzak BETI ola egiten, naiz-ta batzuetan bai; beti beti ez; «noiz bai ta noiz ez» ori oso ondo be-rezi bearra bait dago, olako liburu batean olako bitxikeriak ipiñi baño leen.

Beste orrenbeste gerta diteke, numeralan antzeko dan beste itz batekin ere; ASKO itzarekin.

Asko itza euskeraz singular dalako iritzia buruan geitxo sartuta, gerta bait diteke, norbaitek, asko'ri dagokion berboa BETI singularrean ipintzea. Ortan ere gauza oso ondo aztertu bearra bait dago, eta ikusi noiz dan singular, eta noiz plural. Troxu auetan, adibidez:

«Muti onek ogi ASKO jan du»;

«Muti onek opil ASKO jan ditu»,

beste iritzi artakoak diranak, naiz OGI izan, naiz OPIL izan, singular ipiñiko bait dute:

«Muti onek OPIL ASKO jan du»,

oartu gabe, alegia, «asko-kontua» cantidad *continua* dan (asko = mucho) ala *cantidad discreta* (asko = muchos). Ez bait da berdin.

Itz bitan: gauza auetan ezin diteke presaka ibilli, astiro baizik, eta gauzak askoren artean aztertuaz, eta oituraren bae estuan gauza irazkiaz, umeentzako egin bear diran liburuetan ipiñi baño leen.

Oyartzun, 1981 - V - 22.